

Juduen deportazioan Frantziak «erantzukizun ezabaezina» izan zuela aitortu du Chiracek

Orain arte Estatu frantsesa errudun izan zenik ez zuten inoiz aitortu presidentek

Frantziako agintariek 1942. urtean Parisko juduen aurka egindako sarekadan eta nazien esku uztean «erantzukizun ezabaezina» izan zutela aitortua, Jacques Chirac Errepublikako presidentek haustura historikoa gauzatu du. Orain arte, Frantziako estatuburuak inoiz ez zuten aitortu nahi izan antzeko kulparik.

ÁLANDE SOKARROS / BAIONA

Claude Bartolome, PSko bozeramaileak atzo adierazi zuenez, «Jacques Chiracek arrazoi izan du juduen genozidioan esku hartu zutenen gaitzestean», baina burukide sozialistak berehala gehitu zuenez, «alabaina, ez dagokio Errepublikari barkamenak eskatzea, bera suntsitu egin zutenen ordainez». Hitz hauekin, PSko eledunak, gutxi gora-behera, François Mitterrand Errepublikako presidente ohiak azal dutako jarrerari eutsi zion.

Agintean hamalau urtez izan zenak ez zuten inoiz aitortu nahi izan Frantziak erantzukizunik izan zuela, frantziar juduen deportazioan eta, beraz, naziek egindako holokaustoa. Mitterrandek 1994ko irailean adierazi zuenez, «ez dut barkamenik eskatuko Errepublikaren izenean;



Frantziak izandako erantzukizuna onartu du Jacques Chiracek.

Errepublikak ez du horrekin zerikusirik; Frantziak kulparik ez duela iritzi diot». Gertaeren azalpen gisa, Mitterrandek gehitu zuenez, «gera galduko zutelakoan botereaz jabetzeko baliatu ziren aktibista gutxi batzuk izan ziren krimen horien ardura-dunak, eta ez Errepublika ezta Frantzia ere».

Hitz hauek ihardokitze biziak eragin zituzten juduen komunitatean baina ez hainbestekorik politika munduan zein gizartean. Hori dela eta, iragan igandean Parisko 'Vel d'Hiv'-ko sarekadan 53. urteurrenaren ospakizunetan Jacques Chirac Errepublikako presidentek esandakoak ezuste handia eragin du. 1942. urteko uztailaren 16 eta

17an Frantziako Poliziak 13.000 judu atxilotu eta Parisko 'Vel d'Hiv' neguko belodromoan bildu ondoren, Alemaniako esterminazio eremuetara bidali zituztela esan zuen Chiracek. «Egun hartan, Frantziak, giza eskubideen aberriak eta lur harrera emaile eta babesleak, barkaezinekoea egin zuen». Frantses estatuburuak gaineratu zuenez, «bai, okupatzailearen erokeria kriminalari laguntza eman zioten frantziar batzuek, Frantziako Estatuak berak».

«EZ ZEN BENETAKO FRANTZIA»

Adierazpen hauek historikotzat jo dituzte politika jarraitzaile eta historian aditu guztiek, lehen aldia izan baita

frantses Errepublikako presidente batek Frantziako agintaren erantzukizuna aitortu egin duela juduei egindako pertsekuzioan. Hain zuzen, alemaniarren okupazio eta Vichyko erregimenaren garaian Frantziatik deportatu zituzten 80.000 juduekin «ordainezinako zor bat dauka» adierazi zuen Chiracek. «Iraganeko erruak eta Estatuaren kulpak aitortzea, gure historiako itzaldurak ez tapatzea, gizakiaren eta bere askatasun zein duintasunaren zaintzea besterik ez dira». Horrela jokatzeko «sator lanetan diharduten ilunpeko indarrei aurka egitea» dela azaldu, presidentek «erregoteko» deia egin zuen «han integritasmoak eta hemen bazterketak eta beldurrak hazten duten gorrotoaren izpirituak bizirik dirae-lako».


Deportazioko martirien oroitarriaren aurrean egindako hitzaldi eta lore sorta jartzearen kariatarat adierazitakoari Chiracek gehitu zion, hala ere, kolaborazio garaiko Frantzia ez zela benetako Frantzia. «Frantzia zuzen eta bihoztoi hori ez zen Vichyn kokatzen eta bai, ordea, aske bizi nahi zuten frantziarrak borrokatzen ziren lekuetan eta Londresen zen de Gaulle jeneralari jarraitzen ziotenen baitan». Frantziako presidentearen arabera, «frantses izaera askatasun, justizia eta tolerantzia balioetan oinarritzen da».

Sekretu Ofizialen Batzordera agertuko da laster Suarez Pertierra

MADRIL

Gustavo Suarez Pertierra Espainiako Defentsa ministroa Diputatuen Kongresuko Sekretu Ofizialen Batzordera agertuko da aurki CESIDeko pertsonalaren estatutuaz hitz egiteko asmoz, ministroak berak atzo San Lorenzo de El Escorialen egin ari diren udako ikastaroetan aurreratu zuenez. Suarez Pertierrak 'Pentsamendu estrategikoa eta defentsa kultura' izenburuko ikastaroa zabaldu zuen, Madrilgo Unibertsitate Konplutenseak antolatutako klaseen barnean.

Defentsa ministro berriak esan zuen Gobernuak «abuztua baino lehen» onartuko duela CESIDeko pertsonalaren estatutua eta ondoren horren berri emango diola Batzordeari, Felipe Gonzalezek Legebiltzarrean hartutako konpromezua betetz. CESIDen erreformaren gainean, zehaztu zuen astiro definitutako dituztela intelgentzia zerbitzuen funtzioak, «herrialde moderno batek legalitatearen barruan eskatzen dizkion funtzioak bete ditzaten, segurtasun eta defentsa politiken euskarri gisa eta elkarbizitza sistemarekin bat eginda».



Euskaldunak nora,

LANDAK

Egunkaria hara

CAPBRETON

- Maison de la Presse
- Lassus
- Darrieu Merlou
- Hypermarché Leclerc

CASTETS

- LACAZE Yves
- rue de la poste

CONTIS PLAGE

- GRATACOS Stéphanie

HOSSEGOR

- HOSSEGOR PRESSE
- Librairie Fandango
- MOUSQUES Tabacs-Journ Plage
- DESPOUYSS Tabac-Loto

LABENNE

- Presse Ocean

LEON

- GILLES Philippe
- Grand' rue
- MIGNON Dominique
- Village s/s les pins
- LACOSTE Marie-Jeanne
- au bord du Lac

LESPERRON

- LABOUDIGUE Pierre
- Le Bourg

LEVIGNAC des LANDES

- BORDELONGUE Jean
- Le Bourg

LINXE

- DARRICAU Nicole
- Le Bourg

LIT et MIXE

- MORA Dominique
- Avenue de la Côte d'Argent
- PEHAUT François
- Cap de l'Homy
- SEGUIN
- Camping Les Vignes

MESSANGES

- LOU PIGNADA
- Camping
- SCONPARIN
- Camping
- LABAT Claude
- Camping
- CANPAGNE Pierre
- Boulangerie

MEZOS

- FAGOO Fabrice
- Alimentation
- DAGREOU Claude
- Camping Sen Yan

MOLIETS

- FRECHES Martine
- route de la plage
- HARITSELAR Robert
- Camping Les Cigales
- LABORDE Bernard
- Camping St. Martin
- SAUFNAI Dominique
- Centre Commercial La Bastide

ONESSE et LAHARIE

- SEGUIN Didier
- "Au bourg"

SAINT GIRONS

- ALBALADEJO Pierre
- Camping EUROSOL
- BARONE. Camping Arnachoud
- WAGNON Maurice
- route de Mimizan
- DUPLA Jose. La place

St. JULIEN en BORN

- GRATACOS Yannick
- route d'Uza

SEIGNOSSE le PENON

- BADETS
- Centre Commerc. ESTAGNO
- CORRIHONS
- La Presse des trois Mats
- ZUBIALDE
- Hall de la Presse
- QUIFILLE
- Centre Commerc. BOURDAIN
- Guyenne ety Gascogne
- Camping Les Oyats
- Presse-Tabac

VIELLE St. GIRONS

- PAVIE Philippe
- Camping du Col Vert

VIEUX BOUCAU

- DE VALICOURT. Plage
- TILLO Monique
- Maison de la Presse
- DARRIAU Roland. Plage
- TILLO Patrick
- Hall de la Presse